

Nafarrokaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1992ko maiatzak 29 / II. urtea / 26. zenbakia

Intsumisioa epaitegietara

Zubian Barne



BINGEN AMADOZ

Arturo Kanpiongo izena euskararekin bateginik dugu behin betirako. Txapitelako gure idazle erromantikoak hau bezalakorik etzuen inolaz ere asmatuko, are gutxiago bere bizitzaren azken urteetan: alegia, zenbateko garrantzia izanzen zuen bere izenaren babespean sorturiko euskaltegi batek euskararen birreskurapenean. Arturo Kanpion bezalako aitzindari ideologikoei ez die gutxi zor Iruñeko euskaltzalegoak. Bere izeneko euskaltegiak gainera praktikara eramandu Arturo Kanpionen garaiean ametsa besterik etzena.

20 urte daramazki Konpania, Jarauta, Komedia kaleko euskaltegiak sekulakoak eta bi egiten, euskarak Iruñean izandako toki nagusia berriz ere izan dezan.

Emaitzak, nahiko genituzkenak baino murriztagoak, bainan ez horregatik eskasak. Asko saiatu dira ikasten. Bukaeraraino ez dira, ordea, denak iritsi. Bainan, dagoeneko, hazten ari dira Arturo Kanpion euskaltegiak sorturiko euskaldunberriengandik jaio diren euskaldunzaharrak. Hauek ez dute arazorik izaten, beren gurasoek, asko kostata ikasitako nor-nori-norkak erabiltzeko orduan.

Ez diete iadanik Iruñea erdal-dun batetan giroturiko Juanito Imotz bezalakoek mespretxurik agertzen herrietako Ramonikaren antzeko euskaldunei.


Harro sentitzen dira Iruñeko euskaldunak, euskara dakitelako eta geroz eta gehiago, apal et lotsati ageri dira elebakarrak.

Zenbat aldatu da ipuina Arturo Kanpion jauna!

Euskaltegiak 20 urte bete ditu eta zorionez ez ditu hasierako bakardadean bete. Bere magalean hazitako euskaldunek han hemenka sortu dituzte beste euskaltegi ugari Iruñerrian barna eta egun bi koordinakunde ezberdinetako zentruetan milaka lagun ditugu gure hizkuntzaren ikasle.

Zorionak A. Kanpion euskaltegiari eta egiazko etsairik ezagutzen ez zaion Sagrario Aleman, aspaldi honetan guztien adostasunez, zuzendari dugun etxalekuar maitagarriari.

Hamabi intsumiso epaituko dute heldu den hilaren 2an Iruñean, ordezko zerbitzu sozialari uko egiteagatik. Hauen atzetik beste hainbeste etorriko dira, eta udazkena, prozesuek hartu duten martxari eutsiz gero, beroa izan daiteke. Kontzientzi Eragozpenarako Mugimenduaren (KEM-MOC) aldetik, baina, baikortasuna badago, batez ere gizartearengandik jaso den aldeko jarrera dela eta. Iñaki Subiza KEMren abokatuak dioenez, «espero genuen bidetik abiatzen ari da intsumisioa».




Barnean

OINARRIAK



Festa giroan euskararen agerraldia larunbata Iruñean / III

BARDEAK



Bostgarren martxa asteburu honetan ospatuko da / VII

Gure aukerak

ERAKUSKETAK



Angel Kuberak pintura erakusketa aurkeztuko du Axularren datorren igandean eguerdiko ordubatek aurrera. Axular elkar-teak antolatzen duen aste kulturalako ekitaldien barruan.

IKASTAROAK



Zanku ikastaroa antolatu du Axular kultur taldeak datorren asterako. Astelehenean, ekainak 1, hasiko da ikastaroa, eta egunero ilunabarreko zortziretatik aurrera izanen dira klaseak, Axularren bertan.

MINTZALDIAK



Ama Dablan espedizioaren kideek bere esperientziaren berri emanen dute asteazkenean, ekainak 3, Burlatako Axularreko aretoan. Nafar espedizioak Ama Dablan mendia igotzea lortu zuen joan den apirilean, baina saio horretan bizia galdu zuen Jose Joaquin Goñi Azanza espedizio buruak. Duela hilabete itzuli ziren mendigoizale nafarrek Iruñera eta esan bezala Ama Dablanen gertatutakoa azalduko dute asteazkenean Axularren.


'CUBA GAUR' deritzan mintzaldia entzuteko aukera izanen du datorren asteartean, ekainak 2, ilunabarreko zortziretan Axularren hurbilduko denak. Mintzaldia Axularren aste kulturaren ba-

Otxobik bere herriko festak ospatuko ditu asteburu honetan, Iruñerri inguruan ohizkoak diren ekitaldi guztiekin: txarangak, musika, meza eta abar. Itza Zendearen barruan, Otxobik jauregi ederra dauka herrian bertan, Arraizarenarenak. Aitzinalde sendoa eta xumea, bi dorre dauzka, bi uretara teilatuarekin.

Orobat, herrian bertan hiru baseliza daude: San Miguel, Artizakoa eta San Martinekoa.

Itza Zendea da iparraldekoena dagoena, eta bertan hamasei herri biltzen dira: Aginaga, Aldaba, Aldatz, Aritz, Atondo, Zia, Eritze, Gulibar, Gulia, Itza, Larunbe, Lete, Otxobi, Orderitz, Saratsa, Saratsate, eta Zuasti. Garia paisaian nagusi, herri lasaiak eta eguzkitsuak dira oso, aproposak asteburu lasaiak, herriko plazan pasatzeko, zaratik urrun. Herri guztiak txikiak eta argiak, etxe gehienak harritzkoak dira, pendiente gutxi-

Itza Zendea



ko teilatuarekin.

Larunbe ikustekoa da San Vicente eliza, XIII. mendekoa, eta oso sarrera dotorekin. Porti-

koa berezi oso da, irudi franko eta ez ohizkoak bait ditu. Hain zuzen ere, bataiatzeko harria bertatik aterata da.

bespean Askapena erakundeak antolatzen du.

'Bilduma bat' diska aurkeztuko du astelehenean Iruñean, eta esan bezala asteazkenean izanen da Gaiarren.

dela eta urrirarte mundu osoan zehar ibiliko bait da talde euskalduna euskal raparen berri ematen. Irundarrekin batera Masilla Sound System arituko da Iruñeko Anaitasunan.

MUSIKA



Ruper Ordorika Gaiarre antzokian arituko da asteazkenean, ekainak hiru, ilunabarreko zortziretatik aurrera. Abeslari oñatiarrak, Elkar disketearen eskutik argitaratu berri duen

Negu Gorriak taldea Anaitasuna polikiroldegian arituko da bihar, hilak 30, gaueko hamarretatik aurrera. Talde irundarrak aurten Euskal Herrian eskeiniko duen azken kontzertua izanen da larinbatekoa, bere 'Tour 91+1'

Ekus taldearen eskutik dantzaldia izanen da Otxobin herriko jaiak direla eta, gaur, bihar eta etzi, hilak 29, 30 eta 31, gaueko ordu batetatik aurrera. Dantzal-

dietaz aparte, pilota partiduak igandean, eguerdiko ordu batean; mus txapelketa, mozorro dantzaldia eta abar luzea izanen dira Otxobin asteburu honetan.

KIROLAK



Mountain Bike irteera antolatu du Club Deportivo Navarrak datorren igandera, maiatzak 31. Irteeran parte hartzen duten txirrindulariek Ollokiatik Auritzera joanen dira. Izena emateko deiezazue 22 43 24 telefonora.

Haurrentzako mendi ibilaldien finala igandean jokatuko da Garesen. Froga bertako Kirol elkar-teak antolatu du, Nafar Gobernuko V. Kirol jokoen ekitaldien barruan. Parteartzaileek 10 urte baino gehiago eta 14 baino gutxiago izan beharko dituzte.

Txirrindulari martxa izanen da astelehenean, ekainak 1, Iruñeko Txantrea auzoan bertako AEKK antolatuta. Parte hartu nahi dutenak bere txirrindularen hurbil daitezela Txantreako euskaltegira arratsaldeko sei t'erdietan.

'JFK, caso abierto' pelikula ikusteko aukera izanen da Leitzako zineman gaur, hilak 29, gaueko hamar t'erdietan. Igandean, hilak 31, 'Rocketeer' filma eskeiniko dute zinema leitzarran.

ZINEMA



KAZKARROAN



«Udaletxe honetan ez daukagu grebei buruz inolako abisurik».

Alfredo Jaime
Iruñeko alkatea

«Atxitarteko auzian, ingurugiro edo aldaketa teknikoak baino askoz gehiago, nork agintzen duen erabakitzen ari da».

Federico Tajadura
PSN-PSOeko buruetakoa

«HBrekin, azkenean, hitz egin beharko dugu».

Gabriel Urralburu
Politikaria

«27 eguna, 25 edo 26 bezalakoa izan da».

Jesus Garcia Villoslada
Espainiako Gobernuaren ordezkaria Nafarroan

Miguel Indurain



Txirrindularia

A tarrabiako txirrindularia da, Adudarik gabe, asteko pertsonaia. Italiako Giroko lehendabiziko egunetik garbi utzi zuen saio onean dabilela, bigarrena gelditu bait zen. Hala ere, txundituta utzi zituen Italiako 'tifossi' eta aditu guztiak asteazkeneko erlojupean izugarritzko jipoia ematean. Orain, bera da Giroko 'capo', nagusia, eta atzetik gogor jo beharko dute merezimendu osoko titulu hori kentzeko. Areririk nagusienak, hiru italiar: Chiappucci, Giovannetti, eta Chioccioli, iazko irabazlea. Arrisku-tsuen, sekulan etsitzen ez delako, lehendabizikoa, 'ijitua'.

Jose Maria Zirarda



Iruñeko artzapezpikua

Bere karguan etapa luze bat bete ondoren, eta 75 urte beteta, bere dimisioa aurkeztu dio Aita Sainduari Bakion (Bizkaia) jaiotakoak. Bere ondotik, postua betetzeko izen garbirik ez omen dago. Nolanahi ere, eta Jose Maria Zirarda jaunak bete duen papera begionez ikusi izan dute bai Erromatik nola Nafarroan bertan ere, eta ordezkoa bilatzeko gauzak ez dira sobera garbi, ezta errezak ere. Etorriko denak irizpide eta joera oso desberdinak batu beharko ditu, eta hori ez da beti izan errezegia. Nolanahi gisaz, laister ezagutuko da izena.

Ladis Galarza



Pelotaria

Baraibarkoak, azkenean, txapelduna dela erakutsi zuen joan den igandean Anoetan jokatutako finalean. Iazko txapelaren ondotik, batzuk ez omen ziren konforme gelditu —pilotak zirela, Retegi oso fina ibili ez zela—, eta aurten azken hamar urteotako joera itzuliko zela uste zuten. Baina igandean Ladisek garbi utzi zuen egun bera dela indartsuena, eta Juliani igarri zitzaizkion sobera urteek ez dutela barkatzen. Baraibartarrak badauka bere aurretik txapela gehiago lortzeko aukera, atzetik, oraindik, ez bait da ordezkorik antzematen.

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.0

Larunbatetan 9etatik 10etara... **Xinguli Mangulu** haurrendako saioa.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 13.00etatik 13.45etara... **Informazio Saioa** Baztan, Malerreka eta Bortziritako informazioa. Elizondo, Bera eta Lesaka egunero.

HERRI IRRATIA OM 1134-FM 87.9

Asteazkenean FMn 21.00etatik 22.00etara... **Gautxori** irratia saio musikala. Narrazioak.

RNE RADIO 1 OM 835

Astean zehar 20.30etatik 22.30etara... **Zuri eta Beltz** Elkarrizketak, erreportaiak, musika.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.

Euskararen agerraldia, jai giroan

ALBERTO BARANDIARAN / IRUNEA

Gurdiak, zanpazarrak, momotxorroak, zankuak, txarangak, gaiteroak, eta mota honetako talde luze baten laguntzaz abiatuko da bihar larunbata, hilak 30, 'Euskararen agerraldia', Oinarriak taldeak euskararen inguruko ihardunaldiei amaiera emateko aukeratu duen manifestaldia. Hain zuzen ere, jai giroan egitea da helburua, taldeak berak betidanik defendatu duen euskararen normalizaziorako beste aurrerapausu bezala.

Festa hau desfile moduan antolatu du taldeak, eta euskararen inguruan akordio soziala lortzeko eskaera egingo da bertan. Desfilea arratsaldeko seietan aterako da Iruñeko autobus geltokitik, eta ohizko ibilbidetik, Gazteluko plazan izango du amaiera.

Partehartzaileen zerrenda, luzea, eta haien artean, Txantreako konparsa txikia, Arrosadiako zanpazarrak, Donibaneko konparsa, Lesakako dantzariak, Barañain eta Axular ikastolako zankuak, Antsoingo haur dantza taldea, Paz de Zigandako dantza eta kale animazio taldea, Lizarrako gaiteroak, Otsagiko dantzariak, Altsasuko momotxorroak, Duguna taldea, Ziripot txaranga, Arrosadiako kilikiak eta Ortazar dantza taldea.

Hauen atzetik, manifestazio modua jendea biltzea espero dute antolatzaileek, Gazteluko plazan amaitu arte. Han, jotero, gaitero eta bertsolariak izango dira, eta dantza taldeek Larrain dantza eskeiniko dute. Ondoren, idazkiren bat irakurriko da.

ALDERDI POLITIKOAK ALDE

Ekitaldi honetara agertzeko deia luzatu dute Batzarrak, Herri Batasuna, Eusko Alkartasuna, Euskadiko Ezkerra, Eusko Alderdi Jeltzailea, Izquierda Unida eta Partido Carlis-

ta alderdiek. Honekin batera euskararen egoera larriari aurre egiteko premia azpimarratzen dute alderdiek kaleratutako dei batean, «Nafarroako identitatea, historia eta kultura ezin bait da eskeintza onenen zain gelditu».

Oinarriak taldea, bere aldetik, oso baikor agertu zen joan den astean burututako ihardunaldien balantzea egiteko orduan, eta beren esanetan, jendearen aldetik lortutako erantzuna, «ona baino gehiago, harrigarria izan zen». Izan ere, espero baino entzule gehiago bildu zen mintzaldi guztietan, eta lehendabiziko egunean, kasu, Nafarroa, Euskal Autonomi Elkarte eta Kataluniako Hizkuntza Zuzendariek emandakoan, berrehundik gora izan ziren agertu zirenak.

Larunbateko manifestaldirako deia egiteaz aparte, euskararen egoera larriari aurre egiteko premia azpimarratu dute zazpi alderdiek, «Nafarroako identitatea, kultura eta historia ezin bait da eskaintza onenen eskuetan gelditu».

MAHAINGURUEN MAIL ONA

Jendeaz gain, partaideek ere mail ona erakutsi zutela azpimarratu zuten antolatzaileek, eta mahinguruak «oso interesgarriak izan zirela» azaldu zuten. Lehendabiziko eguneko mintzaldian azpimarratzekoak izan ziren Estebe Petrizan EAKo parlamentariak egindako adierazpenak, EGUNKARIAK kaleratutakoak, Hizkuntz Politikarako Zuzendari



ohiaren esanetan, Euskararen Legearen zenbait artikulua, bereziki hezkuntza arloari dagozkionak, aldatu egingo dira uda pasata. Hori berretsi zuen Iñaki Cabases Parlamentuko Euskara Batzordeko presidentek, eta Rodriguez Otxoa Hizkuntz Politikarako Zuzendariak aldaketa hauek egiteko «giro aproposa» zegoela adierazi zuen. Hau izan zen egunik trinkoena, baina hezkuntza arloko egoerari buruz egin zen mahainguruak ere harrera ona izan zuen. Bertan Euskararen Legeari buruz aritu ziren berriro partaideak, euskararen normalkuntzarako honek paratzen dituen trabak nabarmenduz.

Toponimia eta psikolinguistikari buruz mahainguruak Sanchez Carrion 'Txepetx' hizkuntzalariaren partaidetza izan zuen, eta honek Nafarroan dagoen ezagupena azpimarratu zuen, «Euskal Herriko beste zonaldeetako baino franko altuagoa». Hala ere, plagintza zehatza aurrera eramateko aterabideak «praktikan ez zirela jartzen» azaldu zuen Txepetxek.



Oinarrikoek festa antolatu nahi izan dute.

JOXE

Eskolarteko Bertso Txapelketaren finala datorren ostiralean Iruñean

PATXI ULAIAR / IRUNEA

Nafarroako Eskolarteko Bertso Txapelketaren finala heldu den igandean, ekainak 5, jokatu da Iruñeko Principe de Viana institutuan. Zazpigarren edizio hau joan den ostegunean, hilak 21, hasi zen Etxarri-Aranatz eta gaur, ostirala, Lesakan izango du laugarren kanporaketa, Leitza eta Elizondoko ondotik. Hamazortzi urte arteko gazteak biltzen dituen txapelketa hau hiru modalitatean dago banatuta: bertso papera, bertso zaharrak kantatzea, eta bapatekoa.

Lau kanporaketak dira oro har, eta hortik sailkatuak Iruñean jokatu den finalera pasako dira.

Pasa den ostegunean, esan bezala Etxarri-Aranatz izan zen lehendabiziko saioa, eta bertan Irurtzun, Altsasu, Etxarri-Aranatz eta Lakuntzako eskola eta ikastolen partaideak bildu ziren. Bostehun haur pasatxo, eta Etxarri-Aranatzko zinema bete bete.

Ostiralean, hilak 22, Leitzako zinema jaso zituen bigarren kanporaketaren partaideak, eta atzo osteguna zen burutzekoak hirugarren kanporaketa, Elizondoko El Pilar zineman. Gaur, ostirala, azken kanporaketa izango da Lesakako frontoian, Bortzirietako partaideekin.

Finala, ekainaren bostean, ostirala, jokatu da, goizeko ha-

maiketarik aurrera. Hemen, nahiz eta finala izan, Iruñea mailakoek bertso zaharren lehiaketan parte hartuko dute, eta beraiekin batera, batbatean OHOKo beste zonaldean aukeratutakoak eta OHOTik gorakoak, Bortzirietako Goizuetakoak.

AZKEN URTEOTAKO JAUZIA

Txapelketa hau izan ohi da, sirtu zenetik, bertsolari gazteak eta bertso eskoletan aritu izan direnendako plazartzeko aukera ona. Hain zuzen ere, aurtengo txapelketa nagusiko finalean parte hartu duten Estitxu Arozena eta Xabier Silveira lesakarrek irabazi dute inoiz eskolarteko txapelketa hau.



Arozena eta Silbeirak irabazita dute txapelketa.

JOXE/MANU GOMEZ

Zazpi urte hauetan, eta Nafarroako bertsolaritza bizi ari den jauziarekin lotuta, aldaketa garrantzitsuak izan dira eskolarteko txapelketa honetan, Lontxo Aburuzak azaltzen duenez. «Orain arte bertso paperei eta bertso

zaharren kantuei ematen genien lehentasuna. Orain salto egin dugu, eta batbatean kantatzeak du lehentasuna. Iaz, kasu, soilik lauk hartu zuten parte batbatean, eta bost bertso bakarrik eskatzen zitzaizkien».



Intsumisoei epaiketa

Hamabi gazte epaituko dute ekainaren bian Iruñean, ordezeko zerbitzu soziala egiteari uko egiteagatik. Zazpi epaiketetan banaturik, denendako zigorra bera eskatuko dio fiskalak Juan Carlos Iturri

epaileari: bi urte eta lau hilabeteko gartzela zigorra, alegia. Aurretik Fermin Azkonari egindako epaiketetan zigorra hori paratu zuen epaileak, beste zenbait epaiketetan ez bezala. Dudarik gabe, epe berri bat zabaltzen da epai-

keta hauekin intsumisioaren mugimenduan, ondorioak, oraindik, oso garbi ez badaude ere. Iñaki Subiza abokatuaren ustetan, legea ezartzea gobernuaren kalterako eta mugimenduen onerako izango da.

Hamabi intsumisori epaiketak

ALBERTO BARANDIARA / IRUÑEA

Ekainaren bian egingo den epaiketa hauetan berrikuntza bat baino gehiago izango da, baina askaso azpimagarriena abokatuak eskatu duten zenbait lekuko eta peritoen partaidetza. Horrela, Guillermo Mujika eta Jesus Lezaun teologoak, Iñaki Arredondo Madrilen libre utzi zuten intsumisioa, Mario Gabiria eta Carlos Vilches soziologoak, Fabricio Potestad psikiatra, Zuzenbide Politikoan katedraduna den Pedro Ibarra, Montxo Armendariz zinema zuzendaria, Javier Eder idazlea, Alejandro Arizkun Nafarroako Unibertsitate Publiko errektoreordea, Jesus Garaeta eta Manuel Burguete sindikalistak, Txaro Pardo peñen batzordearen ordezkaria, besteak beste, intsumisioan alde euren jarrera —batzuk— eta txostenak —besteak— aurkeztera azalduko dira.

Hain zuzen ere, horietako lauk peritu-lana egingo dute: Mario Gabiria, Carlos Vilches eta Fabricio Potestad. Horiekin batera autoinkulpatu batzuk ere izango dira epaiketetan.

Halaber, KEM-MOC eta Kakitzat taldeek 250 pertsonaien sinadurak jaso dituzte, tartean Luis Otero eta Alberto Piris militar ohiak, Bernardo Atxaga, Ramon Irigoien, Jose Luis Sampedro eta Antonio Gala idazleak, Julio Anguita IUko koordinatzaile orokorra, Javier Sadaba eta Carlos

Paris katedradunak, Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) eta Nafarroako Unibertsitate Publiko (NUP) 150 irakasle, 100 bat abokatu, 30 kazetari, Julian Retegi pilotaria eta Patxi Bisquert aktorea.

ZAZPI EPAIKETA ORO HAR

Zazpi epaiketa izango dira oro har, goizeko bederatzietatik aurrera, eta Iruñeko 1 penaleko epaitegian. Sei intsumisio epaiketa berean izango dira, seiek adierazpen bateratua aurkeztu bait zuten bere garaian epailearen aurrean.

Bestalde, intsumisioen senide eta lagunak ere intsumisioak ez ezik, intsumisioaren beraren alde ere bazeudela adierazi zuten, eta «bere ahalegin guztiekin» saiatuko zirela epaiketa hauek sona handia izan zezaten. Bozeramaileak azaldu zenez, «ez dugu uste intsumisioa espexetara eramateko delitua denik, eta horretan saiatuko gara».


Epaituko dituzten intsumisioak —Antonio Sanz de Galdeano, Iñaki Carrasquedo Molla, Agustin Villava Primo, Koldo Pastor Yerro, Unai Vara Cesar, Ricardo Robles Espinal, Jorge Goñi Martinez, Jose Antonio Artola Lujea, Fernando Saenz de Miranda eta Alfredo Liras Cesar, besteak beste— zerrenda luze baten hasiera baino ez dira, hurrengo hilabetetarako beste epaiketa franko zabalduko bait da. Hala ere,



Intsumisioak abokatuen aurrean: ohizkoa izango den irudia. JOXE

prentsurrekoan euren elkartasuna adierazi zuten gartzelan preso zeudenekin, eta aurrera jarraitzeko asmoa sendoa erakutsi zuten. «Ziur gaude epaiketa hauek ez direla bidezkoak ezta zuzenak ere, eta aurrera segitu behar dugu».

Jordi Badet Kakitzaten partaideak intsumisioaren mugimenduen gaurko egoerari errepaso egin zion, eta aldeko adierazpen eta jarrera gehiago lortzeko bere itxaropena agertu zuen. «Gaur egun gobernuak daukan gairik garrantzitsuenak,



Fermin Azkona. JOXE

mahai gainean, intsumisioarena da. Hori garbi antzematen da Fiskal Nagusiak bidalitako agiria dela eta, eta gobernuak errepre-siorako bidea hartu nahi duela garbi dago».

Badeten ustetan, «gizarteak epaitu ditu dagoeneko intsumisioak, deialdi berriaren aurrean intsumisioen kopurua gora egiten ari delako etenganbe. Gobernuak ezin izango du hau ahaztu, eta gure estrategia gero eta errotuagoa dago». Hain zuzen ere, epaiketa hauek direla eta, zenbait mobilizazio iragarri dute KEM eta Kakitzatek. Gaur bertan, manifestazioa izango da Gaztelu Plazan. Erakunde eta alderdi politiko zenbaitzuk egin dute jada horretarako deia.

Legea gauza guztien aurretik

Hamabi intsumisori egun beharreko epaiketa jauzi garrantzitsua da kontzientzi objektzio mugimendurako, garbi erakusten duela fiskalek prozesuarekin aurre egiteko erabakia hartua dutela. Egun berean hamabi epaitzea ia anekdotikoa da, baina hurrengo hilabeteotan egoerak izango dituen aldaketak igarri daitezke.

Nafarroak, Europako intsumisio portzentairik altuenetakoak dauka, eta gizartearengandik jaso den aldeko jarrera oso nabarmena izan da betidanik. Azken epaiketa honetarako erakunde eta arlo guztietako onespina eskuratu da, eta bost alderdietako —HB, EA, EE, IU eta Batzarre— buruzagiek maiz kontzientzi askatasunaren aldeko adierazpenak egin dituzte.

Hala eta guztiz, berriro ere, justizia ez omen dator bat gizarteak eskatzen duenarekin. Itxaropenerako parada bazegoen. Madrilen gazte bat libre utzi zuten, «kontzientziak behartu bait dezake pertsona bat bere sinismenei jarraitzera» —epaileak sententziak jasotzen zuzenez—, eta Donostiako fiskal batek «bere gogoeza sakona» adierazten zuten zigorra ezartzeko erabakia hartzerako orduan.

Baina Nafarroan ez. Nafarroako fiskalek eta Latorre jaunak legea gauza guztien aurretik paratu dute, eta ez omen dute aldatzeko asmoa. Ahaztu dute gizartearengandik bereizten den justizia ez dela jada justizia.



Epaiketak hasi zirenetik kaleko protestak ugariak izan dira.

XOUSE SIMAL



Subiza: «Espero genuen bidetik abiatzen ari da intsumisioa»

A.B. / IRUÑEA

Iñaki Subiza KEM-MOCen abokatua da Nafarroan, eta berak eraman du aurrera talde honetako partaideek orain arte izan dituzten epaiketa gehienak. Hurrengo ekainaren bian, intsumiso baten defentsaz arduratuko da eta egun mugimendua bizi ari den momentuaz baikor azaltzen da.

EGUNKARIA.— Epaiketa bateratua egitearena —sei intsumiso epaiketa bakar batean eta beste seiak aparte, baina denak egun berean— zuen ideia izan da, edo epaileak horrela agindu du?

IÑAKI SUBIZA.— Hori horrela agindu du epaileak. Izan ere, sei intsumisoei idazki bera aurkeztu zuten, eta hortik atera da prozedimendua. Gero, epaileak egun berean paratu ditu hamabi epaiketak, agian, lekukoena lana erreteko. Hala ere, ez dut uste aparteko garrantzirik izango duenik.

EGUNKARIA.— Fermin Azkonaren epaiketaren erabakia orain artekoak baina gogorragoa izan da —bi urte eta lau hilabeteko gartzela zigorra—, fiskalak eskatzen zuena, alegia. Ustekabeen harrapatu zaituzte, edo espero al zenuten?

SUBIZA.— Legeak garbi adierazten du hori dela zigorra. Kasu honetan, epaileak legea ezarri du, besterik gabe. Horregatik, espero, espero genuen. Hala ere, azken hilabetetan zenbait epailek absoluzioak edo sententzia aringarriekin erabakiak zituzten, eta horrek jeitsi zituen zigorrak. Hemen ere antzeko zerbait gerta zitekeen, baina ez da horrela izan.

EGUNKARIA.— Baina hemen ere kaleko presioa beste tokietan baino indartsuagoa da, eta intsumisoeen kopurua ere askoz altuagoa da.

SUBIZA.— Horregatik, hain zuzen ere, oinarritu nuen nere defentsa gizararen aldetik zeuden presioan, eta beste epaileek hartutako erabaketan. Azkenean uste genuen ontzat hartuko zutela, baina...

EGUNKARIA.— Espainiako fiskal nagusiak ahalik eta zigorrak altuena eskatzeko eman duen aginduarekin protestaldiak izan dira fiskalen artean, bereziki Katalunian. Horrek eragina izan al dezake epaileengan edo epailetan?

SUBIZA.— Prozesu guztiak fiskalen agindupean hasten dira, baina orain dela gutxi arte ez zuten deus egiten, intsumisio kasuetan. Berriki fiskal nagusiaren agindua jaso dute, eta bertan guztienez hamazortzi hilabeteko gartzela eskatzea agintzen zaie, baldintzapeko askatasuna izan ez dezaten. Izan ere, soldadutzari



Iñaki Subiza Iruñeko bere bulegoan.

JOXE

intsumiso aurtengo urtarilaren 1a baino lehen egin direnei, utebete eta sei urte bitarteko gartzela zigorra dagokie. Urtebete jarriz gero, ez da betetzen zigorra, eta horregatik fiskal nagusiaren agindua. Baina hau oso gogorra da, lehendabiziko delitua izanda, normalean, beti ematen bait da baldintzapeko askatasuna. Ezo-hizko neurria da, dudarik gabe. Nafarroan, baina, ez da fiskalen aldetik protestarik aditu, eta «le-

penerako Muigimenduan (KEM) gure estrategia egin genuenean, desobediencia hautatu genuen bide modura, eta hain zuzen ere, hau zen guk bilatzen genuen ondorioa: legea martxan jartzea. Gertatu zena kontrakoa izan zen: legea ez zen martxan jarri, eta urte asko horrela eman genuen. Orduan, hau da mugimenduaren barruan fase berri bat, espero genuena. Jende asko pilatzen ari zen, eta indarrean paratu dute legea, jario hau mozteko edo jendea pittin bat beldurtzeko. Hala ere, lortu dana kontrakoa izan da, gero eta elkartasun handiagoko dago, debata ireki egin da berriro, eta epaiketak mugimendua indartzen ari dira.

Ez gaude, hala ere, geunden tokitik baino haruntzago. Jendeak badauzka epaiketak irekita, eta ikusteke dago iragarrita dauden guztiak egiten diren. Horrela bada, dozenaka izango dira udazkenean, eta hori jauzi garrantzitsua izango da.

EGUNKARIA.— Eta hurrengo pausua zein izango litzateke?

SUBIZA.— Hurrengo pausua izango litzateke gero eta espetxean jende gehiago sartzea, errepresioa ezinezkoa izan arte, eta legea aldatzera behartu arte. Gandhi edo Luther Kingek egin zuten bezala. Hemen ere ez digute beste biderik uzten. Jendeak pentsatzen duenarekin bat ez badatoz, legea indarrean jar dezatela. Hori da, hain zuzen ere, beraiek duten arazoa.

EGUNKARIA.— Fermin Azkonak bi urte eta lau hilabeteko gartze-

gearekin egokitu beharra, ezta-baidatu gabe» izan da epaiketaren erabili duten argudioa.

EGUNKARIA.— Ekainaren 2ko epaiketa guzti hauen ondotik beste hainbeste prozesu zabalduko dira Nafarroan. Azkonak jaso duen bezalako epaiketa baten beldurtu al ditzake beste intsumisioak edo bide hau hautatzeko asmoa zutenak?

SUBIZA.— Kontzientzi Eragoz-

Orhipean

● Aspaldiko kontua da. Pro-bintzianoek modernixmorako berez dakarten joera ergelak hankapetatutako altxor eder asko nafarrek atera izan dute lohitatik. Manezaundi, Larreko, Irigarai, Izeta eta abar luzea dugu horren lekuko. Eta, Orhipean liburua argitara denetik, Xamar erantsi beharko zaio zerrendari.

Baten bati aditua diot. Liburu honek ez duela izenburu egokia. Baliteke ezetz. Baina, zer pentsatua franko ematen du. Orhipekoa ez den gauza gehiko bizi du gaur euskarak. Erniopean bukatzen baita jeneralean euskaltasunaren espa. Probintzianoek izakera xital hori salatzea ere bada, alde batera, liburu honi Orhipean deitzea. Baina, liburu honen izena ezik izana ere horretara dator.

Modernoa inkultoa da nonahi eta beti. Kultura, klasikoa baita izatez. Teknologia eta merkatuak nahigabeen egiten gaitu moderno. Eta kultura, deus bada eta, axaleko modernixmo pasakor hori egia zaharrez edertzea eta sakontzea da. Honetaz ohartzen ez den euskaldun txoro asko dago gure artean oraindik. Eta are okerragoa dena: euskaltasunaren gidariak berak ari zaizkigu, salbazioaren izenean, bazter guztiak modernixmoz estali behar direla esaka. Jainkoak goarda gaitzala Orhipekoak bederen!

Nere idurikotz, alde hori erakustera dator, batibat, Xamarren liburu xarmagarria. Euskaltasunaren leloa bezain zaharra deneko huts hori betetzera. Leitzeko arina da eta begietara atsegin ematen du liburuak. Letra du irudien lagun. Irudia letrearen argi eta liluragarri. Nonahitik begiraturik ere, hagitz lan maitagarria egin du Xamarrek.

Itxura aldetik, artista baten lana. Gai bakoitzaren sarrera, irudi eta esanera propi batez apaindua beti. Gaiari dagozkion hitzik funtsezkoenak beldurtzago. Testu nagusiaren bazterretara, ohar motx osagarriak, marrakzi ttiki argigarriak. Hitzik zaileskoen esanahiak. Eta beste hamaika xehetasun gutagarri, denak irakurlearen atseginerako.

Mami aldetik, hagitz neurri egokian tratatua du gai bakoitzak. Ez astunegi eta arinegi. Hitz gutxitan esaten baitu gauza asko, eta modu gustagarri gainera. Dena dakizula iruditu arren, gai bakoitzean beti ager-

tuko zaizu ez zenekien kontu berri gustagarriren bat, handik edo hemendik. Nik benpe, ahaztuetako gauza franko goratzez gain, kontu ttiki berri asko ikasi dut.

Honelako dibulgazio liburuak hagitz aproposak dira, normahiri eta batipat haurrari egunero hankapetzen duen lurre ez dela mutua erakusteko. Ez dakit zer nolako harreraren egin izanen zaion liburu honi eskolatan, baina, ni irakasle bantintz, urte guzian gogoan edukiko nuke.

Baita, guraso izanik, neronek ikasi ahalean, nere haurrak euskal animaz sorgindu nahiko banitu ere.

Neretako, euskal animaren enziklopedia ttiki bat bezala hartzeko liburua da. Eta halakotzat har ez dezanak, beste nonbaitean darabilke gogoan. Euskaldunok erregalo modura hartzeko liburua da hau. Pamielak argitartzen dituen liburu gehienak bezala, preziorik ez duena. Liburu honek duen alderik merkena, dirukin paga litekena baitu.

Bukatzeke, eta liburu biritu dela ez esateko, kokka batzuk ukitu nahi nituzke:

1.— Zertara dator Txepetx liburu honen aitzin solasera? Xamarren lagun mina delakotz? Askotan nahasten dira pertsonak eta pertsonaiak gure herrian. Hagitz sinale txarra. Bien kaltetako baizik ez baitira izaten lautik hirutan. Ez naiz inor tentatzen ari. Arrazoia begien bistakoa da. Neretzako Txepetx guztiak ez baitira Orhipeko?

2.— Euskara beraren eta euskaltasunaren iraupenaren topikoak maizko egiten diote irrist Xamarri. Ez noski inor itozteko moduan, baina, frankotan errepikatzen da lelo hori. Eta liburu honek ez luke merezi irakurleagan horrelako irudipenik sor dadin.

3.— Eta bukatzeko, tarteka ageri diren, beste huts ttiki batzuk, gramatikalak liriateke. Niri behintzat, ere batzuk arrotz xamar egin zaizkit, *ba-* eta *egin* adizkien hutsa nabaritu dut frankotan. Menpeko esaldi batzuk motz gelditu ote diren iruditu zait. Baita *mendratu* hitzaren azalpen okerra ere ikusi dut nonbait.



Patziku Perurena Idazlea

lara zigortzen zuen epaia errekurritzea erabaki du. Hau KEMek duen jarreraren kontra doa.

SUBIZA.— Hasieran bide juridiko guztiak agortzen saiatzen ginen, legea eta soldadutza bera ere geldiarazteko. Errekurtsoak aurkezten ziren, baina guzti hori galdu egin genuen, auzitegi nagusiek gure errekurtsoen aurka

erabaki bait zuten. Hor amaitu zen borrokaren arlo juridikoa. Orduan, intsumisoei buruz buruko borrokara jotzera erabaki zuten. Hau da, legeari muzin egitea. Hori izan da hortik aurreko jarrera. Ferminen kasua guztiz pertsonala izan da, baina guk, mugimendu bezala, beste ildo batean gaude.

Gazteendako Zokoa

Txantxangorria

Erithacus rubecula

Zabaldua iparraldean
Bularraldea laranja
Migrazioa bakarka
egiten du



Oldartsua berez

Txantxangorriak euskaldunen artean duen fama, txori eta animala gutxi izango dute. Kantu, ipuin, eta kontu frankotan aipatua izan da betidanik, eta bere bular gorriak eta bere izakera oldartsuak kondaira eta herri sinimean toki ongi irabazia utzi diote.

Oso zabaldua iparraldean, hegoalderantz urritzen da nabarmen. Bere gorputza oso sendoa da, lepoa motza, eta bular eta kopetalea laranja koloreduna dauka. Zuhaitz txikiko basoetan bizi da, bai mendian nola ibar eta haranetan, baina normalean beti 800 metrotik beheiti.

Ederki egiten du hegan, baina gustokoagoa du lurlean aritzea, saltoka. Bere elikadurarako insektu, har eta zenbait basafruitu hartzen du.

Ederki gordetzen du bere eremua, eta beste espeziekideren bat sartzen bada bertan, liskarra segurua da. Hainbeste, ezen batzutan heriotzaraino ere hel daitekeela.

Migrazioa egiteko, gabez egiten du bidaia, bakarka, beste espezieetan hain ohizkoak diren sailik gabe. Txofrakia oso era erosoan apaintzen du, eta goroldioa, txotxamarrak, hostoak, sustriak, luma, eta artilea ere erabiltzen ohi ditu.



Zazpi ahuntzak eta Robokop

JUANMA AMAS

Ameriketako mendebaldean zegoen herrixka txiki batean —populazio aldetik handia eta polit-polita zena—, zazpi ahuntz bere amarekin bizi ziren. Guztiak anai-arrebak ziren, bi neska eta bost mutil hain zuzen ere.

Bi ahuntz nahiko onak ziren, edo hobeto esanda, ondo portatzen ziren bi ahuntz ziren. Oso oso jakintsuak ziren, Karl Marx baino jakintsuagoak. Hain jakintsuak ziren batek Sokrates eta besteak Aristoteles izena zutelak.

Bost ahuntzen deskribapena egitea falta zait. Bost hauen artean hiru normal xamarrak ziren, ni bezalako 'jatorrak eta majuak'.

Falta diren bi hauetatik bat bihurri samarra zen, baina bestea 'firma' hutsa zen. Zein bihurri den ideia bat hartzeko, hiru dendetan lapurretan harrapatu zuten. Etxe bateko lehio gehienak apurtu, be-

re hiriko hamabi gizon-emakume ala neska-mutil hil eta azkenik bere gizarte irakaslea torturatu.

Josetxo —horrela deitzen zen— herriko porrozaleen taldekidea zen. Deskribapen hau bukatzeko, ama ez zen zaharra baina ezta gaztea ere. Hain zuzen ere, 45 urte zituen.

Buruan zuen urre luze hori motza polit baten bidez zuen apainduta, eta bere bi itsaso politetan marea beltza zegoela zirudien, begi beltzak zituen eta.

Goiz eguzkitsu batean amak erosketak egitera joatea erabaki zuen janaria asko eduki zezaten. Joxetxo berarekin eramaten zuen maltzurkeriren bat egin ez zezan.

Zazpi ahuntzak —beno ez, sei ahuntzak, Josetxo falta bait zen—, jolasten ari ziren bitartean... tok, tok, tok, atean jo zuten. Ahuntzak beldurtu ziren. Ez zuten ireki nahi. Panba! atean ukabidez jo zuten. Robokop zen.

Guztiak ezkutatu ziren. Robokop Josetxori buruz galdetu zuen. Ez zegoela, erantzun erantzun zuten ahuntzek. Robokopek ahuntz guztiak bahitu zituen, eta azkenean joan zen.

Han zegoen Robokop whisky bikoitza edaten eta ahuntz guztiak patata zakuetan sartuta. Ama —karateka ona zena—, atzetik ukabildkada bat eman zion eta edalontzia muturraren erdi-erdian sartu zuen baina... ez zitzaion ezer gertatu. Izugarria, ezta?

Jazintak, orduan, hau ikusita, bere jakinduriarekin bere bazoka, kañoi moztuta zuena, pun-pun-pun-pun sabelaen erdi-erdian jo zuen Robokop, eta lurrera erori zen erdi hilik.

Sokrates eta Aristoteles pozaren pozaz amarengana hurbildu ziren besarkada bana emanaz eta eskerrak eman zizkieten amari.

Hortik aurrera, zazpi ahuntz hauek oso ondo bizi ziren.



BASAJAUN

Rioko konferentziaren aurrean, argi gelditu diren jarreraren aurrean, nabaria da EEBBko jokaera zein izango den. Aurpegi garbitze hutsa, batez ere. Munduko lehenengo potentziak bere interesen alde jokatu du berriro ere, eta gas isurkinak gutxitzeko nazioarteko akordio bat lortzeko bilera porrot egin dezake. Noiz arte izango dira interes ekonomikoak ekologikoak baina arrakastatsuagoak? Nor ote da EEBB beste herri eta nazioen aurrean horrelako irtenbidea bultzatzeko? Zergatik hainbeste kontraesan? Ez al da garrantzitsua, biosferaren egoera behin ezagututa, behar diren neurriak hartzea, lehen bait lehen, betirako?

Euskal talde ekologistak txalotu beharrekoak dira gai honen inguruan, jarrera garbia erakutsi dutelako: Rioko burokraziaren aurrean, ikuspuntu kritikoa eduki behar da, han ez bait da izango lurrarako espero den aurrerapen nagusia. Hortik Erreka izeneko plataforma. Haize berriak izanen dira euskal ekologisten artean? Nazioarteko tirabira hipokritak mugimendu ekologista ez dutela geldituko argi uzteko berrikuntza zoragarria izanen denez gero, aurrera joan dadila espero dugu.

Are pozgarriagoa da denontzat, era berean, Lemoizen kontrako burrukaren amaieratik orain hamar urte direla eta berrikuntzaren berri ona.

Agurtzeko, ea Rioko konferentzia sorpresaren bat dakarren...

KAZKARROAN

Uda

Udara etorrita
batera galbana (bis)
amak esaten digu
'egin ezak lana'
gure erantzuna da
'no me da la gana
egin beharrekoa
pikutara dana'
kristoren alper hutsak
hori da gerana

Telebistan aurrean
patxaran jarrira (bis)
kokakola bat eta
hiru kilo pipa
noizbehinka jasotzen det
amaren bisita
'zer demonio zabilzt
hortxe eserita'
alperrik izaten da
amaren errita

Ohiane Olaberria

KONTRAPASA

Erantzunak zehaztuz joan ahala, pasa ezazu letra bakoitza dagokion laukira. Beheko taula osatu ondoan Ezkurran jasotako esacera zahar bat ageriko zaizu.

1. Basa adarduna
2. Solairu euskarriak
3. Tripa
4. Gaueko hegazti
5. Indarkeria

B	1	A	3	B	8	A	11	A	6	D	5
B	3	A	10	D	9	D	10	D	2	B	9
A	1	D	8	D	3	B	5	A	5		
D	7	B	10	A	12	B	6	B	7	B	4
A	9	A	2	D	4	B	12	D	1	A	7

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
A												
B												
D												

N-28

Zaharrak berri

Ilunbetako lana, argitzen lotsa.

Ilunbetako lana askotan oker egina da.

Areso

Ipurdiko gaitza izan du horrek.

Kalte edo ezbehar handia.

Lesaka

—Neka-neka eginda nago.

—Egun guztian lotan egon zara, eta nekatua?

—Bai, baina lanean aritu naizela amets egin dut.

Bizi Bizian

Asteburu honetan izango da Bardeetako Poligonoaren kontrako bostgarren martxa, hango batzordeak antolatuta. Urtero bezala, aste osoan zehar mahainguru eta ekitaldiak burutu dira

honen inguruan, baina aurtengo edizioa hiru gertakarik markatzen dute bereziki. EEBBko Armadak alde egin zuen Bardeetatik, nahiz eta kontratuak indarrean egon; Europako gerrarako abioiak

entrenamenduak bertan egin zitzakeen berri zabaldu zen; eta, pozgarriena, Europako parlamentuan ezbaian dago gaia ADMAR-Eguzki taldeak egindako lanari esker.

Bardeetako Poligonoaren kontra

MATTIN KAPITANSORO / TUTERA

Asteburu honetan burutuko den bostgarren martxa honen aurretik aste osoan zehar zenbait mahainguru eta mintzaldi izan dira Tuteran gai honen inguruan, eta gaur bertan, ostirala, zinema emanaldia izango da bertako Versailles zinematokian, 'La noche mas larga' ('Gau luzeena') pelikularekin. Astea, berez, joan den ostiralean hasi zen mahainguru batekin, 'Bardeetako arazo' izenekoa. Bertan Jose Antonio Gaiarre Bardeetako Batzarraren presidentea, Iñaki Egiluz biologoa eta Milagros Rubio Poligonoaren aurkako batzordekoak hartu zuten parte.

Asteartean 'Armadak, zertarako?' izeneko mahaingurua izan zen, eta asteazkenean ekologia eta politika internazionalari buruz aritu ziren biologo eta ekologistak.

Lehendabiziko martxa antolatu zenetik, gauza franko aldatu da Bardeetako poligonoaren inguruan, eta garrantzitsuena, akaso, deusestatzeko beharraz talde eta erakunde gehienen artean lortu den adostasuna. Gogoratu behar hasieran soilik talde batzuek zutela horren aldeko jarrera garbia, baina, egun, poligonoaren kontrako batzordea bateratu eta anitza oso da. Bildu ere, bertan biltzen bait dira udal, erakunde, eta herri mugimenduetatik ateratako ekimenak.

GERTAKARI ADIERAZGARRIAK AURTEN Aurten zenbait gertakari esanguratsu izan da auzi honen inguruan. Lehendabiziz, Estatu Batuetako Armadak bere abioiak bertatik ateratzeko hartu duen erabakia. Kalera sona handikoa, praktikoki eta funtsean egoera ez da gehiegi aldatu, poligonoa erabiltzeko Espainiako Armadarekin lotzen duen kontratuak bertan dirau eta.

Gogoratu behar Jose Antonio Gaiarre Bardeetako Batzordearen presidentea horren inguruan galdera luzatu ziola Espainiako gobernuari hango parlamentuan, egoera berria zertan gelditzen zen ezagutu asmoz. Gobernuak azaldu zuenez, Bardeetako poligonoa erabiltzeko hitzarmena indarrean dago alde eginda ere, eta EEBBko armadak nahi duenean erabil dezake berriro. Milagros Rubio poligonoaren kontrako batzordearen bozeramaileak esaten duenez, «euren bigarren etxebizitza da oraindik ere



poligonoa, eta alde egitearenak, beraz, ez du funtsezko garrantzirik».

Bestalde, aurten ere, Europako gerrarako abioi berriak Bardeetako poligonoa erabiliko zuelako berria zabaldu zen. Zaragozako zentruan izango ziren abioi hauek, beraz, entrenamendurako toki aproposa izango zuten bertan. Berria guztiz konfirmatu gabe ere, batzordeak Nafarroako herri guztietara bidali zituen orduan honen kontrako mozioak, «eta erantzuna ezin hobea izan da».

IGANDEAN BATASUNAREN MARTXA

Aurtengoa 'batasunaren martxa' ere izendatu daiteke. Duela urte batzuk poligonoaren kontrako batzordean izandako zatiketari buelta eman zaio, eta martxa bakarra eta bateratua izango da igande honetakoa, azken urtetan ez bezala. Orduan, ADMAR-Eguzkik beste baterako deialdia egin ohi zuen. Rubiok azpimarratzen duenez, «batzordeak lortu du Bardeen inguruko ekintza guztietarako —herrikoiak, instituzionalak eta pertsonalak—

erreferentzia bakarra izatea».

Egunotan, baina, ADMAR-Eguzki talde ekologistak Europako Parlamentuan aurkeztutako mozioa eztabaidatzen ari dela kaleratu da. Taldeak duela bi urtez aurkeztu zuen proposamena, bere aldetik, eta horrek batzordearen barruan nolabaiteko hausdura sortu zuen. Egun, baina, hori gaudituta dagoela dio Rubiok. «Proposamena ADMAR-Eguzkik bere kabuz aurkeztu zuen, baina gaur ez luke horrelakorik egingo. Nolanahi ere, garbi utzi behar da batzordearen barruan

begionez ikusten dela poligonoa deusestatzeko edozein ekintza, maila guztietan, baina ez litzateke bidezkoa mozio hori ikustea gauza aparte bezala, duela bi urteko kontua bait da».

EUROPAKO PARLAMENTUAN EZTABAIDAGAI

Alfonso Aranda talde ekologistaren partaideak, bere aldetik, «oso baikor» ikusten du gaia Europara ateratzeko bere taldeak egindako ahalegina. «Gu ekintza guztiaren alde ere bagara, baina martxa 'Bardeetako Birjinen Eguna' bezalako ospakizun hutsean gelditzea ez genuen nahi, jakina. Gainera, bagenekien hemen ez zegoela irtenbidea, Nafarroako Parlamentuak, kasu, ez bait du

Aurtengoa 'batasunaren martxa' ere izendatu daiteke. Duela urte batzuk poligonoaren kontrako batzordean izandako zatiketari buelta eman zaio, eta martxa bateratua eta bakarra izango da igandean, azken urtetan ez bezala.

zer esanik hor. Benetan sartaia eskutik helduta dutenengana joatea erabaki genuen».

Hori dela eta EEBB eta lehengo SESBren enbaxadetara jo zuten lehendabiziz, garai hartan desarmarako elkarriketak zeudela eta, eta ondoren Europako parlamentariengana jo zuten. «60 parlamentariekin aritu ginen hizketan, eta hogeitamaseik, talde guztietakoak, gure proposamena sinatu zuten. Hain zuzen ere, pozgarria izan da duela bi aste deitzea eta jakitea ez direla batera ahaztu gaiak, eta mahaiaren gainean dutela aditzea».

Bardeetako poligonoa behin betikoz deusestatzeko falta den azken urratsaz, bat datoz bi bozeramaileak: «Armadarekin egin dugu topo». Rubioren ustez, ekintza herrikoiak dira gaiari aurrerapausu bat eman diezaioketenak. «Presioa indartu egin beharra dago, ahal den neurriraino». Arandarendako, Nafarroako Gobernuak ere areagotu egin beharko luke bere presioa, «akordio hutsek, bestela, ez bait dute ezertarako balio».

Jesus Lopez de Dicastillo

.....abenturazalea

Jesus Lopez de Dicastillo abenturazale nafarrak Amazonian bizitakoari buruz liburua aurkeztu berri du, 'Ayahuasca, heriotzaren soka' izenekoa. Landare hau —ayahuasca— Amazoniako kultura eta sinismenaren oinarrietako bat da, eta bere inguruan shamanek —hango

azti eta apaizak— errito eta ospakizunak antolatzen dituzte. Mundu honetan sartzea baliagarria izan zitzaien egileari bertan gordetzen den mundua hobeki ulertzeko, eta salaketa gogorra egin du etengabe erasotzen ari diren alde horren egoera dela eta.

«Naturarekiko azken lotura Amazonia da»

ALBERTO BARANDIARAN / IRUNEA

EGUNKARIA.— Nola adieraziko zenuke ayahuascarekin izan zenuen esperientzia?

JESUS LOPEZ DE DICASTILLO.— Ayahuascari buruz hitzegiteak, hemen, ez dauka zentzu handirik. Espainiarrak Amerikara heldu zirenean, latinezko Biblia bat eramanean zieten hangoei, eta indiarrek ez zuten tutik ere ulertzen. Haien beste mintzairak zuten...

Liburu honetan nik izan ditudan esperientziak kontatu nahi izan ditut, baina inolako interpretaziorik egin gabe. Interesa duena hara joan dadila. Ayahuasca da Amazoniako kulturaren oinarrietako bat, baina ezin da interpretatu hemengo ikuspuntuetatik, ondorioak beti okerrak izango bait lirake.

Orain modan dago Amazoniari buruz aritzea. Lurra osoa birrindu eta desegin dugunez, orain oroitzen gara Amazoniarekin, mundu osoarentzat funtsezkoa bait da oxigeno eta lehengaien erreserbak direla eta. Baina garbi utzi behar da Amazonia salbatzea ez dela garrantzitsuena, nahiz eta zuhaitzak eta landareak oso garrantzitsuak izan. Amazonia salbatu egin beharra dago han bizi diren herriak naturarekin benetako lotura duten bakarrak direlako. Gu aspaldian urrundu ginen naturatik, eta Amazonia da gizakiok gure iraganarekin dugun erreferentzia bakarra.

Orduan, ayahuasca argi bat bezala da, iragan horretara hurbiltzen duena, garbi, erreal. Erlijio ospakizunen bidez, landare horren zukua hartzerakoan, norberren baitako errealitatea azalartzen da. Horrekin ulertzen da be-

netan naturarekin daukagun lotura eta uztarria.

EGUNKARIA.— Ayahuascaren inguruko erlijio hauek Amazonia osoan aurki daitezke, edo zenbait kulturen ezaugarria baino ez da?

LOPEZ DE DICASTILLO.— Ayahuasca Amazonia osoan dago, eta hango tribu guztiek ezagutzen dute. Hala ere, jendeak ez du normalean erabiltzen. Bere erabilera soilik ohianaren maisu eta apaizek —shamanak— kontrolatzen dute. Hauek kontrol eta jakinduria handia dute ohianaren landare eta indarren gainean. Han badaude botanika eta animalia liburuetan agertzen ez diren makina landare eta animalia, oraindik sailkatu gabeak, eta shamanek badakite haien erabilera frantseko.

EGUNKARIA.— Izan dira zenbait ahalegin horrelako teknikak bertatik ateratzeko. Korellako zentru naturistan, kasu, shamanak eraman behar zituztela adierazi zuten. Atera daiteke errito horiek beren eremutik?

LOPEZ DE DICASTILLO.— Nik ez dut horretan sinisten. Nere ustez hori interes komertzialen menpe dago. Nik errespetu handia diet Amazoniako sinismen eta teknika guzti hauei, eta horregatik oso zaila egiten zait nere esperientziei buruz hitzegitea. Hori bai, garbi daukat benetan izugarria dela ayahuascaren kontu hau. Ez dakit zehazki noraino eraman gaitzakeen, baina burua irekitzen digun giltzaren antzeko zerbait da.

EGUNKARIA.— Eta edonor da gai hara joateko eta ayahuasca hartzeko, edo behar da jarrera bereziren bat?

LOPEZ DE DICASTILLO.— Pullcapa-ra (Peru) jende asko joaten



Jesus Lopez de Dicastillo Bolivian, 1987an.

da, ez dakit nor edo zeren bila, ayahuasca hartzera. Litro bat garagardo edatea balitz bezala. Horrek ez du ezertarako balio. Ayahuasca hartzea jarrera mental bat da. Landareen arima da, eta naturarekin batere harreman edo loturarik ez badaukazu, ez dituzu somatuko landare horrek dituen ondorioak. Umiltasun handiarekin joan behar, norbera naturaren zati bat besterik ez delako ustetan. Hara heldu zen nere lagun batek hartu nahi zuela esan zidan, eta lehendabiziz Amazoniatik zehar bidaia bat egitera eraman nuen, hango atmosfera eta arimaz jabe zedin.

EGUNKARIA.— Aipatu duzu Amazonia bera salbatzea baino

garrantzitsuagoa dela bertan bizi diren kulturak salbatzea.

LOPEZ DE DICASTILLO.— Amazonia salbatzeko modu bakarra da bertan bizi diren kulturak salbatzea, horiek bait dira naturaren aurrean jarrera baikorra erakutsi duten bakarrak. Progreso eta garapena aurretik paratzen badugu, akabo.

EGUNKARIA.— Eta oraindik badago esperantzarik?

LOPEZ DE DICASTILLO.— Soluziobide bakarra da mundu osoko iraultza sakona. Baina hau ez da utopia. Jendeari jabearazi behar zaio Amazonia salbatzeak mundu osoa salbatzea dakarrela, beste ekosistema txikiagoak salbatzeko gai izango garelako. Ho-

rretarako militarismoarekin bukatu egin beharra dago; jaiotze kontrol eraginkorra paratu beharra dago; Ipar eta Hegoaren arteko banaketa zehatza lortu behar da, eta abar. Hau da, garapenaren modelo bera aldatu egin beharra dago.

EGUNKARIA.— Amazoniaz aritzen zarenean, zertaz ari zara, bertan bizi diren kultura guzti horiei buruz, edo haien arteko desberdintasunak loturak baino handiagoak dira?

LOPEZ DE DICASTILLO.— Bertan badaude milaka kultura, arraza eta hizkuntza, baina denek dute oinarria bera. Eta, hain zuzen ere, naturari dioten begirunea da haien arteko lotura.

NOSKI
JATOR

ZVLDI EROA

